BIZITEGI ERAIKINA — TXURRUKA 11

D MAILA



Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1871

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi bi jasodura atzeraemanak (lehenengoak –1934ren aurrekoa– jatorrizko txapituladun estalkipekoa ordezkatzen du, eta bigarrena 1941ekoa da). Behe oineko fatxada osoa marmol beltzez estalia dago, eta goi oinetan zeramikaz estalia, leiho baoen azpadurak nabarmenduta. Hirugarren oineko bao zentralean 1934ko hormigoizko begiratokia dago. Behe oineko lokalaren baoak 1934. urtearen aurretik elkartu zituzten. Jatorrizko proiektu komuna Txurruka 9rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak, atzeraemanak; 3. goi oineko begiratokia.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* 3. goi oineko begiratokia kentzea.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzearekin lotzen diren irizpideak –behe oineko baoen eta fatxadaren konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.